

## HILTEGIA EZ ITXI

### ZEHAZTU ALA ZUZENDU ALKATE JAUNA

Joan den astean Laudioko alkateak Udal Hiltegia behin betiko ixteko bere ustezko arrazoiak azaldu zituen prentsaurrekoan.

Tokiko hedabideek jasotakoaren arabera, zehaztu gabeko hainbat kontsiderazioez gain, akusazio oso larria egin zuen. **Laudioko hiltegiak ez ditu osasun-baldintza guztiak bermatzen bere ustez.** Gatazka honetaz aparte, **bete ez diren osasun-baldintzak zeintzuk diren argitzeko exigitu egiten dugu.** Baldintza horiek ez betetzeagatik salaketarik eta, hala badagokio, zigorrik egon badiren jakin nahi dugu. Eta kasu honetan zeintzuk izan diren hartu diren neurri zuzentzaileak ere.

#### **Azalpen hauek ematerik ez balu, zuzenketa publikoa eskatzen dugu.**

Adierazpen horiek zalantzan jartzen dute gure animaliak instalazioetara eramane ditugun lehen sektoreko profesional guztien lana, zentro horretan lana garatu duten pertsona guztiena, azpiegitura honen bidez tokiko eta kalitateko okelaz hornitu den saltoki txiki guztiarena, baita Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarena ere; izan ere, elikagaien higijene- eta segurtasun-baldintzak bermatzen baititu honek. Eta segurtasun ezean kokatzen gaitu instalazio horietatik datorren haragia kontsumitu dugun pertsonok.

**Bere ustez hiltegia defizitarioa da, baina oraindik ez da gai ustezko defizit hori kuantifikatzeko;** 50, 80, 100 edota hedabide batzuetan 150 mila eurotako inkluso defizita aipatzen digute. Mesede txikia egiten dio ordezkatzeko duen karguari honek, baldin eta gauden unean hori baino gehiago zehazteko gai ez bada.

Plataforma honek dituen azken datuak 2018koak dira, eta datu horien arabera, 2018an Udal Hiltegiak 10.000 € inguruko superabita sortu zuen. Horrek bi egoera posiblekara garamatza, bakoitza bestea baino okerragoa dena; lehena, 2019ko gatazkan gertatu zen bezala, datuen irakurketa zuzena egin ez izana, berez txarra dena, baina bigarrena are okerragoa litzateke, 2019an 10.000 euroko superabita duen azpiegitura bat hartu izana eta oraindik kuantifikatzen ez dakiten defizit batera eramane izana.

Nabarmendu nahi dugun hirugarren gaia **bere ustez instalazioak irabazi-asmorik gabeko elkarte bati lagatzeko edo alokatzeko gure proposamena ez da legezkoa, eta are gehiago, "delitua" ere badela ere aipatzen du hedabideren batean.** Ez dakigu baldin badakien irtenbide hori hiltegiak kudeatzeko hartu den, hitzarmen bidez, Lautadan edo Etxarri-Aranazen, besteak beste. Administrazio hauek delitutan ari dira? Ez dakigu jabetzen baden Laudion bertan kultur eta kirol elkarte ugari daudela beren jarduerak garatzeko azpiegitura publikoak kudeatzen dituztenak. Elkarte hauek eta Udal hau delitutan ari dira?

Gero eta argiago daukagu uztailaren bitik hiltegia behin betiko ixtea aldez aurretik pentsatutako erabakia dela, eta horretarako aurkeztutako aitzakia guztiak denbora pasatzen uzteko ke estalkia baino ez direla izan, eta **garatzen ari den jokabidea** ia udalerrian gertatzen den edozein ekimenarekin, (anbulatorio berria edo skate pista, herriaren gizarte-ehunaren gainetik pasatzen den bi adibide berrienak bakarrik jartzeagatik) **absolutismo ilustratu berri honen bereizgarria izango dela.**

HILTEGIA EZ ITXI

LAUDIO n, 2021eko urriaren 25ean